

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa aurrera ateratzeko, elkarteak edukitzea funtsezko esparrua da. Gure produktua kirol munduarekin lotuta dagoenez arlo horretan egiten duen enpresa batzuekin lan egitea egokia izango litzateke guk eskeintzen dugunari kalitate ona emateko, eta, horrela gure produktua geroz eta gehiago hobetzeko.

Produktua Euskal Herrian gehienbat ekoiztuko denez, gertuko enpresen laguntza bermatuko dugu, hau da, Euskal Herrian edo inguruan dauden enpresei. Gure enpresaren aurrerapen handiena lortzeko, Amaya Sport eta Treku izango ditugu alboan guri laguntza eskaintzen.



Lehenik eta behin, Amaya Sport Nafarroako enpresa bat da eta bertan kirolaren munduarekin zerikusia duen guztia hornitzen dute. Enpresa honekin elkartzerako momentuan, gure armairu barruan joango diren materialak hornitzeak asko lagunduko digu, Amayak kalitate altuko materiala baitauka. Elkarlan honi esker, gure produktuen fidagarritasuna eta kalitatea handituko litzateke, Amaya Sport bezalako enpresa ezagun batekin lan egiteak bezeroen konfiantza areagotzen

duelako. Haien esperientzia eta ezagutza gure proiektura egokituz, material egokiak hautatu ahal izango genituzke, iraunkortasuna eta segurtasuna abiapuntu izanda.

Bestalde, armairuak egiteko, Treku enpresa zarautzarraren laguntza edukiko genuke. Hauek altzariak egiten dituzte, hortaz gure produktua armairu baten antzekoa denez, hau egiterakoan kalitate on eta gertuko materialez lagunduta, aurrera ateratzen lagunduko liguken. Armairuaren diseinua, bi enpresen artean egingo genuke, guk ideia proposatuz, eta Trekuk, armairua diseinatuz.

Horrez gain, Amaya Sport eta Trekurekin lankidetzat estua izateak berrikuntza bultzatuko luke, produktu berriak garatzeko aukera emanez eta merkatuan sortzen diren beharrei azkarrago erantzuteko gaitasuna eskainiz. Modu honetan, gure armairuak kirolarien beharretara hobeto egokituta egongo lirateke, erabilgarritasuna eta kalitatea lehenetsiz.

Euskal Herriko kirol denda gutxitan egongo da gure gimnasioa eskuragarri, lehen argitu dugun bezela salmenta gehienak internet bidez izango direlako. Nahiz eta internet izan salmenta gune nagusia, denda fisikoetan saltzea ere nahitaezkoa ikusten dugu. Demagun internet erabiltzen ez dakien norbaitek eskuratu nahi duela, edo aurrez-aurreko zerbitzua jaso nahi duela. Pertsona hauentzat hainbat denda egongo dira erabilgarri, hala



nola, **Intersport** Zumarragan, **BullGear** Zumaian eta **Decathlon** Donostian.

Beste alde batetik, gure produktuaren produkzioa egiten den tokia Urretxuko industrialdean egongo da kokatuta. Horretarako, Uggasa enpresak ekoizten dituen lokaletako bat alokatuko genuke. Uggasak, lantoki merke eta handi bat eskaintzen du, gure lanetarako oso aproposa dena. Gainera, bertan jarriko ditugun altzariak Treku enpresa zarauztarrean erosiko genituzke.

Gure proiektua finantzatzeko duen mailegu bat ezinbestekoa da. Hori dela eta, Laboral Kutxaren bitartez lortuko genuke behar dugun dirua, beraiek gure proiektuarengan erabateko konfiantza dutelako.

Azkenik, tokiko enpresekin lan egiteak Euskal Herriko ekonomia indartzen lagunduko luke, jasangarritasuna eta gertutasuna balio nagusi gisa hartuta.